

I. CONCURSO FOTOGRAFICO "Día de San Sebastián"

Zer da benetan "Danborrada"? Zer sentitzen dugu
Nondik dator? Nola bizi Zer esanahi du? Donostiarrok?
Zergatik dugu? Zergatik janzten
horrenbeste zarata? gara honela
Kontaiguzu zer den eta nola bizi den Danborrada Donostian

¿Por qué ¿Qué es realmente "La
nos vestimos ASÍ? ¿Qué se siente? Tamborrada"?
¿De dónde? ¿Qué significa? ¿Qué se celebra? ¿Por qué
viene? ¿Cómo lo vive un Donostiarra? tanto ruido?
Cuéntanos qué es y cómo se vive "La Tamborrada" en San Sebastián

Más info:
www.luminososargadigital.com

Envío de las obras:
concursosansebastian@digitalarga.com

Organiza:
Antolatzailea:



Patrocinan:
Patrozinatzaileak:



Asesor Técnico:
Aholkulari Teknikoa:



Colaboran:
Laguntzaileak:



I. ARGAZKI
Donostiako LEHIAKETA
eguneko

DONOSTIAKO EGUNeko I. ARGAZKI LEHIAKETA; ARGa DIGITALEN ESKUTIK ANTOLATUTA, ARGa DIGITAL, LA PERLA CENTRO TALASO - SPORT ETA BODEGAS INURRIETAREN BABESAREKIN.

Zer da benetan Danborrada? Zer sentiarazten du eta nolo bizi dute donostiarrek? Zer esanahi du eta zein da bere jatorria? Jende askok ez du ulertzen gure janzkeren eta hainbeste zarataren zergatia. Lehiaketaren lehenengo edizio honen helburua da kanpotarrei ulertaraztea zer den Danborrada eta nola bizi dugun Donostian.

GAIA:

“Janzkera”

PARTE HARTZAILEAK:

Partehartzea dohainik izango da eta argazkiak bidaltzearekin batera burutuko da.

Lehiaketa honetan parte hartzeko baldintza bakarra 18 urte izatea da, nazionalitate edo bizitokia edonon izanaz .

ARGAZKIAK AURKEZTEA:

Argazkiak bidaltzeko epea otsailaren 5ean 21:00tan amaituko da.

Argazkiak hurrengo helbide elektronikora bidaliko dira: concursosansebastian@digitalarga.com eta izan daitekeen edozein zalantza edo iruzkin ere bai. Argazkiak mezu bakar baten bitartez egin beharko dira, nahiz eta egileak argazki bat baino gehiago auzteztu.

Bertan atxikitu beharko dira:

A)Argazki bakoitzeko JPEG artxibo bana, gutxienez 300ppp-ko erresoluzioarekin eta argazkiaren alde luzeenak 36cm dituelarik.

B)Beste artxibo bat hurrengo datu pertsonalekin: Izen-abizenak, helbide elektronikoa, helbidea, telefono zenbakia eta argazki bakoitzaren izenburua. Nahi duenak ere argazkiei buruzko azalpen testu bat atxikitu dezake, 200 hitz edo gutxiagokoa.

Epaimahaiak oinarriak betetzen ez dituzten argazkiak deuseztatzeko eskubidea izango dute.

SARIAK:

Egile berak ezingo du sari bat baino gehiago eskuratu. Behin epaiketa bukatuta, egile beraren argazki bat baino gehiago sarituen artean egongo balitz, honen azpitik geratutako beste egileen argazki batez ordezkaturako litzateke. Sari guztiak banatuko dira.

Lehenengo saria:

Erakusketa baten inprimaketa*. 70x50cm inguruko 12 obra inprimatuko dira **Luminosos Arga Digital**en eskutik, dibond materialean eta atze euskarriarekin.

*Inprimatzeko epea 6 hilabetetan amaituko da. Denbora hau pasata argazkiak inprimatzera bidali gabe, irabazleak ezin izango du bere saria jaso.

Inurrieta “Puro Vicio” Edizio Mugatu 6 botila sorta.

Bigarren saria:

La Perla Centro Talaso – Sport pakete osoa: talaso zirkuitoa, itsaso hilaren lokatz masaia eta aurpegi masaia itsas gatzekin. Bi pertsonendako bazkaria.

“Altos de Inurrieta” Erreserba 6 botila sorta.

Hirugarren saria:

Talaso zirkuitoa eta bi pertsonendako bazkaria La Perla Centro Talaso – Sporten.

Inurrieta “Orchídea Cuveé” Zuri (Kupelan) 6 botila sorta .

EPAIMAHAIA:

Jabier Villarreal (artista eta Euskal Herriko Unibertsitateko Multimedia Sorkuntza eta Grafika Teknologiko Irakasle Burua Arte Ederretako Fakultatean).

José Luis Pujol, argazkilaria.

Mikel Muruzabal, argazkilaria.

Hirurak argazkilaria profesional eta independenteak.

Epaimahaia otsailak 16 eta 28 tartean bilduko da argazki finalistak eta irabazleak izendatzeko.

15 obra finalista egongo dira, zeinetatik bi akzesit eta irabazle bat aukeratuko diren.

15 finalisten argazkiak Luminosos Arga Digitaletan inprimatuko ditu, eta Donostiako La Perla Centro Talaso - Sporten hiru hilabeteko erakusketa bat egingo da haiekin. Erakusketa honen inaugurazioa martxoan izango da eta bertan izango da sari banaketa. Erakusketaren hasiera data www.luminososargadigital.com web orrian zintzilikatuko da eta finalistei email edo telefono bidez jakinaraziko zaie.

Erakusketa bukatu eta gero, 15 finalisten argazkiak La Perla Centro Talaso - Sportetik jasotzeko hilabete bateko epea egongo da. Epe hau pasata, ezingo dira argazkiak jaso eta hauek antolatzaileen eskutan geldituko dira.

Epailak argazkien sormena, kalitatea eta errepresentazio ahalmena kontuan izango dute.

Ez dira lehenago saritutako, publikatutako (online zein paperezko egunkari, liburu edo aldizkarietan) edo beste leihaketatik aurkeztutako argazkiak onartuko.

Fotomontaiak guztiz debekatuta daude. Epailen begitan edozein argazki mota honetako manipulaziorik izango balu (hala nola elementuak ezabatzea, lekualdatzea edo ipintzea) segituan deuseztatuko da.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Autore eskubideak argazkien egileen eskutan geldituko dira. Hauek izango dira erantzule bakarrak propietate intelektualaren legearekiko.

BAIEZTAPENA:

Lehiaketa honetan partze hartzean, bere oinarriak onartzen dituzu. Oinarrietan agertzen ez diren xehetasunak epaimahaiak eta antolatzaileek argituko dituzte.

Argazki guztiak errespetuz eta kontuz maneiatuko dira. Dena den, edozein argazki galdu, hostu edo hondatzen bada antolakuntza ez da erantzule izango.

Partehartzaileak argazkien egile izateaz erantzule izango dira .

Antolatzaileak ez dira erantzule izango argazkietan ageri diren pertsonen irudi eskubideaz. Arazorik egongo balitz, argazkilariak konpondu beharko du.

Sarituek antolatzaileari (Luminosos Arga Digital) obrak erreproduzitzeko beharrezkoak izan litezkeen eskubideak emango dizkio, aurtengo lehiaketan eta hurrengo edizioetan sustatu eta hedatu ahal izateko, beti ere egilearen izena aipatuz.